

KRONIKA > XI. DONOSTIA ANTZERKI SARIA

IKARAGARRIZKO BONBA JAUZI DA VICTORIA EUGENIAN: «ERRAUTSAK»

Maider IANTZI

ANTZERKIAREN MUNDUKO EGUNERAKO JESSICA A. KAAHWAK IDATZITAKO MEZUAK BEZALA, PATXO TELLERIAK ETA MIKEL MARTINEZEK ERE GERRA IZAN ZUTEN HIZPIDE VICTORIA EUGENIAKO EKITALDIAN. «BONBARDATU DEZAGUN MUNDUA ANTZERKIZ», DEI EGIN ZUTEN. HASTEKO, BONBA GALANTA ERORI ZEN ATZO: «ERRAUTSAK».

Artedramak, Le Petit Theatre de Painek eta Dejabu Panpin Labortegeak elkarrekin egindako antzezlan da "Errautsak", Unai Iturrigaga eta Igor Elortza bertso-

lariek idatzitako elkarrizketekin osatua. Bi durangarrek jaso zuten, hain zuten, Euskararen Udal Patronatuaren eta Donostia Kulturaren saria. Ainhoa Bello Euskara zinegotziak koadroa eman zienean, esker oneko solasak baino ez zituzten izan.

«Aktoreak kontzentratuta egi daude—hasi zen Elortza umorez—. Horregatik, guri tokatu zaigu ohorea edo 'marroia'. Oso pozik gaude sariagatik, eta lehenengo egunetik jende askok ikusi duela-ko antzerkia. Asko etorri zaizkigu zorientzera edo iritzia ematera eta horrek esan nahi du jendeak bere egin duela antzezlan. Hori da onena, hori eta koadroa. Diruarena, 'soportatu' egiten da».

Iturrigagak eskerrak eman zituzten hiru konpainiei ezagutzen ez zuten arlo batean lan egiteko aukera emateagatik. «Eskerrak batez ere euren. Merezki zuten», adierazi zuten.

«Nazio Batuek dirutza eskergak xahutzen dituzte mundu osoan bakegintzarako armak erabiliz; bitartean, antzerkia aukera berez-

«Oso pozik gaude sariagatik, eta lehenengo egunetik jende askok ikusi duela-ko obra», erran zuen Igor Elortzak

Igor Elortza eta Unai Iturrigaga, leondra jaso ondotik eskerrak ematen.

Argazkia: DANIELA LAZARRETTI/ENK

ko, gizatiarra da, askoz kostu gutxiagokoa eta askoz indartsuagoa», zioen Jessica A. Kaahwa Ugandako Makerereko Unibertsitateko katedradunak Antzerkiaren Munduko Egunerako idatzitako mezuak. Eta Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreek aurkezpen barregarria egin zuten gerra mantzaga hartuta.

Adibidez, euskaraz terminologia militar eskasa ikusten zutela eta, hitz edo esamolde batzuk proposatu zituzten: «legimarios», alkandora zuri-zuria duen legionarioa izendatzeko, edo «porrotx egina», pailazo batek gerra galdu duela adierazteko. Sarrera txiki honen ondotik erori zen antzekian iragarritako bonba erraldoia: "Errautsak" obraren antzezpena.

Aktoreak saria jasotzeko eta batetik bat emanaldia egiteko gogoz zeuden. «Publikoarekin harreman oso ona sortzen da, gure artean ere bai, eta plazer handia da», azaldu zioten GARARI.


Ximun Fuchs zuzendari eta aktoreak proiektu honen abiapuntuaren berri eman zigun: Artedrama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabu Panpin Labortegekoak bildu eta elkarrekin proiektu bat egitea pentsatu zuten. Fuchsek sinopsia idatzi zuen. Istorian sei lagun biltzen dira zazpigarren bat chorzteko. Lagun handiak izan ziren luzaz eta hamabost urtez bakoitza bere aldetik ibili ondotik, orain berri biltzen dira. Eta ez dute elkar ikusteko gogo izpirik ere!

AMETSA EDO HARROKERIA

«Inprobisazio lanei ekin eta ideiak taula gainean jartzen genituen, baina ikusi genuen ez ginela idazleak. Lagunak mintzatzen direlarik badute kasik beren hiztegia, gakoak, errandalak... Hori mintzairan zorrotzu beharra genuen eta bertsolariei laguntza eskatu genien».

Lan talde polita osatu zuten, hortaz. Aktore ezagunak daude tartean: Ximun eta Manex Fuchs, Ander Lipus, Miren Gaztañaga, Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo. Euskal Herriko antzerki bat egitea zuten xede. «Hori zen gure ametsa edo harrokeria. Eta hein batean lotu dugun», baieztatu zuten zuzendariak.

Kontent daude lortutakoarekin, eta harrera hagitz ona izaten





«Errautsak» obraren antzezpeneko irudi bat. Alina Carrutxaga eta Aina Gaztañaga agertzen dira.

ARGO: CANTILLANA / JACAZO PRESS

ari dela ikusten dute; jendea biltzen da aldiro, zurrumurruek onak dira eta publikoarekin zer-bait pasatzen dela sentitzen dute. «Gaua serioak aipatzen ditugu, ez molde serioan, ordea. Gure buruaz trufatzen gara. Baina jendeak ezagutzen ditu antzezen ditugun pertsonaiak; beratek ez baldin badira, lagunak edo lehen-gustuak izango dira».

Euren belaunaldiaz solas egin nahi zuten, nortzuk diren eta zer egin duten azaldu. Pertsonaiak ezberdinak dira, baina belaunaldi bereko kideei begiratuz gero ere, denek ofizio eta bizi desberdinak dituzte. «Belaunaldia ez da bat, jende, ikuspuntu eta izateko molde antz daude», argitu zuen Fuchsek.

Aitzitik, ezaugarri bat izan dezakete denek: ez dituzte gaztetan zituzten ametsak bete. «Hori denon kontua da. Ez dakit norik bete dituen gaztetako ametsak! Ez ditut ezagutzen eta esaten dutenei ez dakit sinistako dieran!», aitortu zuen aktoreak irrika. Gai horretaz hausnartzen dute antzezlanean: «Zein diren ametsak eta zertan ari garen gure ametsekin. Ea baditugun oraindik ametsak edo ehortzi ditugun, zer falta zaigun, zer izaten ahal ginen eta zer ez garen... Existenziala dirudi, baina gauza aski sinplea da».

«XX. mendeko ametsen erraustak gara. Oraindik ere, erraustetan noizbait surik izan zela sinestuz nahi diogu gure buruari. Ba ote?». Gogoeta hau egiten dute, baina ez dute erantzunik emanen. «Galderek pasatzen ditugu, eta kasurik hoberean, jendearekin kaña bat hartu, baina urrugo ez gara joaten!».

Zer izaten ari da artistentzat proiektu honetan politena? «Oraindik bizi beharke dugunak», erantzun zuen Fuchsek. Azpeitiko Topaketetan publikosaren saria eman zieten, atzo, Donostiako, eta hau ere hagitz ongi hartu zuten, plazer handiarekin. «Fama mailan laguntzen digu, publikoa

atzematen, emanaldiak lortzen, eta saria dirua ere badenez, ondoko ikuskizuna prestatzen».

«Erraustak» obraren bertzeko bezitasun bat hainbat euskalki eta hizkera josi izana da. Eurentzat gozamen izan da, aktore bezala, hizkuntzarekin jostatu nahi zutelako. Egia erran, errealitatean zaila da istorio honetakoa bezalako koadrilarik topatzea, kide bat zuberotarra duena, bertzea bizkaitarra, hertzea gipuzkoarra, lapurtarra... «Kasik gerta zitezkeen hori gure belaunaldian Iparraldeko ikastolan, errefuxiatuen seme-alabak baitzeuden, batekoak eta besteokak. Baina, gainerakoan, nekez gerta liteke». Bakotza bere euskalkian aritzeak, bestealde, pertsonaiei sinesgarritasuna ematen diela deritzo; ikusleek gutxienez euskalki bat menperatzen dute eta badute ardatz bat segitzeko.

KANTUEN INGURUAN BILDUTA

Etagabe egiten diote erreferentzia euskal kantutegiari. «Behar bada, hori gelditzen zaigu herentzian, gure kantuak. Abesti baten eta trago baten inguruan biltzen gara. Norbait ehortzen zaila zaigu gure erritua atzematea, gure belaunaldia ez duela erlijio sinesten. Eta kantuen bidez erritua hat asmatzen dugu gaztaroo edo laguna ehortzeko».

Ezenografiari dagokionez, Jose Pablo Arriagak egin du: sinplea da, kutxa bat eta mozorro batzuk soilik daude, aktoreen lana agerian uzteko.

«Www.erraustak.com-en jakinarazten dute zeintzuk izanen diren hurrengo emanaldiak: Zarautz, Igorre, Eibar, Aulesti... Fila bat egiten dituzte, pila bat egiten dituzte, eta horretaz harro daude. Normalean antzerkira joaten ez den jendea ere erakartzen lortu dute, gainera. Emanaldi antz egin dituzte denbora gutxian eta horrek publizitate naturala sortu du, ahoz ahoko publizitatea. Jendeak lagunak, gurasoak edo osaba-izebak deitzen ditu errantz: «Etortri».

Andar Lipus aktorea pozarren zen sariarekin, baina, nabarmendu zuenez, euskal antzerkia eginez antzokia betetzea da berarentzat onena. «Nik uste gako txiki bat dagoela: hiru konpainia elkarrekin lan egiten ausartu gara, Iparraldeko eta Hegoaldeko mugara hori apurtzen, eta horrek obrari berebiziko indarra eman dio. Nor here euskalkia erabiltzen entzutea ere asko gustatzen zaio jendeari».

Euskaldunon imaginarioan dauden gauzez solas egiten dute: «Gure gauzak dira, gure kantuak, gure arazoak». Kontu hagitz ezberdinak ikiten dituzten arren, badago joera, publikoak batez ere, irri egiteko. Berez, obraren hasiera gogorra da: lagun bat hil da. Eta horrek puntu tragiko bat ematen dio, baina gero besta bati bihurtzen denek, bertze indar bat hartzen du.

Zigor euskaldun zikiratuaren pertsonaia antzezen du Lipusek. «Antzeuskalduna da, baina azkenean bera da euskaldunena. Hasieran, esaten du paso egiten duela bertsolariak ikustera joateaz, gorroto dituela, baina bertso bat botatzen bukatzen du». Bertzeak bezala, kontraesan bezala dago. «Basurdetxo bat da. Harropuzte-na da, eta maitasun kontu bat esan behar duenean astakirten hata».

«Belaunaldi baten parte gara. Jairo nintzean! Franco oraindik noiz bizi zegoen. Gante nintzean Kortatu, Irtzainak, Zarama eta Eskorbuto maite nituen, eta badago hor mami bat. Hori da transmititzen duguna, guk bizi izan dugun istorio txiki bat antzerkiaren ikuspuntutik kontatua. Erresistentziako herri batean bizi gara sentitzen dut eta erresistentzia hori egiten dugun antzerkian ikusten dela uste dute, agertu zuen aktore bizkaitarrek. Obraren primeran pasatzen du, gainera kideek bezala. Horra hor atzo ere besta leherrarazi zuen bonbaren sorburua».

Peripatético



Carlos Gil
Analista cultural

En didascalia cósmica, Valle-Inclán se refería a Max Estrella y Don Latino como «dos poetas peripatéticos». Quedamos cogidos a su noción más atrabiliaria, como descripción de ridículos o estrafalarios. Pero se trata de una escuela filosófica encabezada por Aristóteles, que viene de la voz griega peripatos, paseo, es decir que la referencia valleinclanesca es un tratado, una luz para la dramaturgia, para la puesta en escena. El peregrinaje por la noche madrileña de esos dos enormes personajes es una fuente de sabiduría y una escuela de vida, una lección teatral, literaria, léxica, filosófica, histórica, incluso más allá de la ya de por sí inefable aportación teórica del concepto «esperpento» que atraviesa esta obra magna. Un regalo, cúlmen de la literatura dramática universal, que con su simple lectura uno logra el placer absoluto.

Ayer se celebró el Día Mundial del Teatro, cita funcionalizada, no metaholizada por todos los sectores, una suerte de cumplimiento ritual de la lectura de un texto internacional donde caben todas las vaguedades, y que se apoya con algunos actos menores a su rebufo. Este mes que se nos va ha celebrado cuatro días mundiales, porque la fragmentación sectorial es un intento de disolución, una tribalización nada operativa. Titeres, para niños y jóvenes, narración oral, más el genérico. Aprovechese la ocasión, vivase el teatro en los medios, en la sociedad, pero no agoten las tracas en un día. El teatro es mucho más que mensajes puntuales, es un compromiso diario. Hágase teatro siempre, aunque sea el peripatético. ¡Viva el Teatro!

«Zein diren ametsak eta zertan ari garen eurekin. Ea baditugun oraindik ametsak».

Gogoeta hori egiten dute